



MENDAROKO
UDALA

2024KO EKAINAREN 25EAN OSPATURIKO BATZAR OHIKOAREN AKTA

Bertaratutako Zinegotziak:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Enetz Ezenarro Arriola J. (EH BILDU)

ETORRITAKO ZINEGOTZIAK:

Borja Rodriguez Barreras J. (EH BILDU)

Sonia Garcia Raposo A. (EH BILDU)

Olatz Bizkarguenaga Iñarrairaegui A. (EH BILDU)

Dorleta Lazarobaster Arakistain A. (EH BILDU)

Iñaki Arregui Uria J. (EAJ-PNV)

Nerea Isasi Bedayo A. (EAJ-PNV)

Nuria Guerola Horrillo A. (EAJ-PNV)

Amaia Urrea Mardaraz A. (EAJ-PNV)

TELEMATIKOKI PARTE HARTU DUTE:

EZIN ETORRIA ADIERAZI ZUTEN:

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA:

Korporaziokoa den Nerea Etxarri Ubeda
Anderea.

Mendaron eta Udaletxeko Areto Nagusian, bi mila eta hogeitalaugarreneko ekainaren 25ean zazpiak zirela, Udalbatza bildu da ohiko Osoko Bilkura egiteko.

Mahaiburu Korporazioko Alkate Lehendakaria Enetz Ezenarro Arriola izan da.

Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarriak Erregulatzen duen 7/1985 Legearen 46/2-c artikulua agintzen duena kontutan hartuz, Alkateak, hasera ematen dio Udal Ohiko Osoko Bilkura honi, aurrez konprobatuz, Korporazioko kideen gutxiengo kopurua eta Alkatea eta Idazkaria bertan daudela.

Eguneko gai zerrenda:

1. Urgentziaz Iñaki Arregui eta Nuria Guerola zinegotzien garguari uko egiteko gaia saioan barneratzea.
2. Aurreko sesioaren aktaren berradorea onartzea, halabada (2024.05.28)
3. 2023ko kontu orokorraren behin betiko onarpena.
4. 2024-2027 ko dirulaguntzen plan estrategikoaren akatsen zuzenketa.
5. Ekainaren 28a, Igtbiq+ harrotasunaren egunaren deklarazio instituzionala.
6. Mendaroko ikastolako ordezkarien aldaketa.
7. Iñaki Arregui Uria eta Nuria Guerola Horrillo-k Mendaroko udaleko EAJ-PNV taldearen zinegotzi karguari uko egitea.
8. Alkatetzaren ebazpenak.



MENDAROKO
UDALA

LEHENENGO PUNTUA. URGENTZIAZ IÑAKI ARREGUI ETA NURIA GUEROLA ZINEGOTZIEN GARGUARI UKO EGITEKO GAIA SAIOAN BARNERATZEA.

2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena ren 82 eta 83 artikuluei jarraiki, Alkateak, behar bezala arrazoitutako urgentziazko arrazoiengatik, Iñaki Arregui eta Nuria Guerola zinegotzien garguari uko egiteko gaia zerrendan sartzea proposatzen du. Osoko bilkurak ahobatez gai-zerrendan sartzea berretsi egiten du eta azkeneko puntuan azalduko da gaia.

BIGARREN PUNTUA AURREKO BATZARRAREN AKTAREN ZIRRIBORROA ONARTZEA, HALABADA.- Batzar honen deialdiari 2024.05.28 datako aurreko batzarreko aktaren zirriborroa lagundurik, Zinegotzi Jaun Andereei inolako behaketarik egin behar duten galdetzen zaie.

Bat bera ere ez denez aurkezten Udalbatzak ahobatez,

e r a b a k i t z e n d u

2024.05.28 datako Batzarraren Aktaren Zirriborroa onartu, eta honen arabera Aktara jasotzera jo.

HIRUGARREN PUNTUA. 2023KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.-

Kontuan hartuz Kontu-hartzailtzak 2023ko ekitaldiari dagokion kontua osatu zuela eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako ediktu bidez jendaurrean jarri zela maiatzaren 27an.

2024.05.21 Kontuen Batzorde Bereziaren aldeko irizpena izanik eta ikusita hamabost eguneko epean interesdunek ez dutela iritzitako erreklamazioak, eragozpenak eta oharrak aurkeztu

Horregatik guztiagatik,.

Udalbatzak, ahobatez,

e r a b a k i t z e n d u

Lehena.- 2023ko Kontu Orokorra behin betiko onartzea eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzea.

LAUGARREN PUNTUA. 2024-2027 KO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN AKATSEN ZUZENKETA.-

Oinarrizko izaera duen diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio: «administrazioko organoek edo diru laguntzak ezartzea proposatzen



MENDAROKO
UDALA

duzen beste guztiek, aldez aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko baten zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea».

Diru Laguntzen Lege Orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea zuzentzen duen printzipioetako bat gardentasuna da, eta horrek modu zuzenean du eragina diru laguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun eta efizientzia mailaren igoeran.

Plan hau hainbat urtetarako izateko bokazioz egin da, beti ere urtero beharrezko izan daitezkeen aldaketak egin beharko bazaizkio ere.

Horregatik, 2024.02.20an ospatutako Antolaketa batzordearen aldeko diktamena kontutan izanik, Udalbatzari Diru Laguntzen Plan Estrategikoa onartzea proposatzen zen.

Ebazpen horretan akatsa dela eta ez zen barneratu etxebizitzak berritzeko dirulaguntzarik nahiz eta 2024ko aurrekontuetan onartuta zegoen

Hori guztiagatik, Udalbatzak, bozketa egin, eta ahobatez, honako hau

e r a b a k i t z e n d u

Lehenengoa. 2024-26 ARTEKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA berriro ere onartzea, espedientean jasota dagoen bezala.

Bigarrena. Plana jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuta, 30 eguneko epean, erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzaten, eta Udalbatzak ebatziko ditu. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da, osoko bilkurak berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe.

Aldi berean, Planaren testua Udalaren web-atarian argitaratzea [helbidea: <https://www.mendaro.eus>], eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarri guztiak jasotzeko.



MENDAROKO
UDALA

Hirugarrena. Alkate-udalburuari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten era guztietako agiriak sinatu eta sinatzeko.

BOSGARREN PUNTUA. EKAINAREN 28A, LGTBIQ+ HARROTASUNAREN EGUNAREN DEKLARAZIO INSTITUZIONALA.-

Ekainaren 28an, LGTBIQ+ harrotasunaren egunean, harro gaudela aldarrikatu nahi dugu. Harro gaude gure bizitzek, harro gure genealogiaz eta harro LGTBIQ+ mugimenduaz.

Komunikabide nagusien estigmatizazio saiakera ezberdinek zein manipulazioak, eskuin muturreko diskurtso intoleranteek eta gorroto jarrerak cisheteroarautik kanpo kokatzen diren bizitzak ezabatu nahi dituzten honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da nondik gatozen gogora ekartzea, ospatzea eta aldarrikatzea. Stonewalletik Euskal Herrira, milaka bizipen, galera, aldarrikapen eta lorpen izan ditugu, baina oraindik egiteko asko dugu. Eraso LGTBIQ+ fobikoen salaketen datuak esponenzialki egin dute gora azken urteetan, LGTBIQ+ pertsonen inbizibilizazio eta bazterketak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtso patologizatzaileak ugaritzen ari dira... eta ondorioz gure bizitzak arriskuan daude.

Honen guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Gure kasuan, instituzioetatik politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... ezartzea ezinbestekoa dugu. Anekdotikoak diren politikak alde batera utzi, eta estrukturalak diren horiek erdigunean jartzeko garaia da. Horretan ari gara eta hori sustatzen jarraituko dugu, askoren artean eta elkarlanean.

Horregatik guztiagatik udaletan konpromisoa hartzen dugu, gure herriko LGTBIQ+ pertsonen bizitzen gaineko diagnostikoak egin, eta honetan oinarritutako ekintza plan integralak abiatzeko.

Prozesu hauek, herriko LGTBIQ+ mugimenduko kideekin batera egiteko konpromisoa hartzen dugu eta egon ezean, erreferente eta norbanako ezberdinak aktibatze moduak sustatuko ditugu. Honetaz gain, dei egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko, eta amaitzeko, LGTBIQ+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako.

Gora Ekainaren 28a!

SEIGARREN PUNTUA. MENDAROKO IKASTOLAKO ORDEZKARIEN ALDAKETA.-

2568/1986 azaroaren 28ko E.D. Organizazio eta Funtzionamenduko Erregelamenduaren, 38 c) artikuluari jarraituz, Kide anitzeko organuetako ordezkariari buruz, Alkatearen proposamena eztabaidatu ondoren,



MENDAROKO
UDALA

Udalbatzak, ahobatez,

erabakitzen du

MENDARO IKASTOLAKo ordezkaria Olatz Bizkarguenaga anderea izatea.

**ZAZPIGARREN PUNTUA. IÑAKI ARREGUI URIA ETA NURIA GUEROLA HORRILLO-
K MENDAROKO UDALEKO EJA-PNV TALDEAREN ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA.-**

Iñaki Arregui Uriak jaunak eta Nuria Guerola Horrillo andereak Mendaroko Udaleko zinegotzi izateari uko egiteko ekainaren 24ko eskabideak aztertu ondoren

Udalbatzak, ahobatez,

erabakitzen du

LEHENENGOA. IÑAKI ARREGUI URIA (15379112R) ETA NURIA GUEROLA HORRILLO (15391196X) zinegotzi karguei, hurrenez hurren, uko egin izanaren berri jasotzea.

BIGARRENA. EAJ- PNV taldeari eskatzea ordezeko hautagaiak izenda ditzala hautaezintasun-kausaren batean sartuta ez dagoen adin nagusiko edozein herritarren artetik.

ZORTZIGARREN PUNTUA. ALKATETZAREN EBAZPENAK.- 2568/1986 Dekretu Errealeko 42 artikulua araberak, azkeneko udalbatzatik gaur egunerarte Alkatetza honek emandako Ebazpenen berri ematen da: 130/2024 zbkatik 151/2024 zbkira.

130/2024 zkia: ETXEONENA S.L. enpresari 1.645,34 €ko fidantzaren itzulketa

131/2024 zkia: Barruko trenkadak eraisteko baimena, Trinidad, 2 beheko lokalean

132/2024 zkia: Trinidad, 2. Behea lokalean dagoen itxitura-hormaren gainean burdin hesia jartzea, kanpoko arotzeria ordezte eta lurzorua nibelatzea.

133/2024 zkia: I Bonu kanpainako parte hartzaileei ordainketak

134/2024 zkia: Lizarantzu baserriko fatxadaren mantentze eta pintura lanak egiteko baimena

135/2024 zkia: Santana teilatuaren konponketa.

136/2024 zkia: Bosgarren luzapena. Eskualdeko ospitale inguruan zuntz optikoa berria jartzeko obra lizentzia.

137/2024 zkia: MTE elkarteari dirulaguntza ematea

138/2024 zkia: Lokalean leihoa zabaltzeko baimen eskaera. Jose M. Linazasoro 5, behea.

139/2024 zkia: Azpilgoeta kalea 7. beheko solairuan dagoen lokalaren hirugarren sektoreko erabilera etxebizitzara aldatzeko baimena.

140/2024 zkia: Maiatzeko fakturen zerrenda

141/2024 zkia: Zelaikua Enparantza 6. beheko solairuan dagoen lokalaren hirugarren sektoreko erabilera etxebizitzara aldatzeko baimena.

142/2024 zkia: E.E.L. zerbitzua onartzen, A.A.JM.. espedientea

143/2024 zkia: X.L. eta C.O.-ren arteko ezkontza burutzeko B.R.B zinegotziari eskumena ematea.



MENDAROKO
UDALA

144/2024 zkia: Bigarren aldiz baimentzea eta urte batez luzatzea, Mendaroko Ludoteka eta Gazteleku zerbitzuen kontratua ZIENTZIKASI, S.COOP. enpresari

145/2024 zkia: E.E.L. zerbitzua onartzen, A.A.M.. espedienteari.

146/2024 zkia: E.E.L.Z. zerbitzua maiatza, 19 erabiltzaile, aportazioa: 1.665,21 €.

147/2024 zkia: Espedientea ebazteari uko egitea

148/2024 zkia: Mendaroko Goñati eraikineko Gimnasioa kudeatzeko zerbitzu-kontraturako kontratazio-espedientea onartzea, prozedura ireki arruntaren bidez, zerbitzu-emakidaren eta lizitazio elektronikoaren modalitatean, lizitaziorako deialdia egitea.

149/2024 zkia: Mendaroko Jose María Linazasoro, 7ko 2.ezkerreko eta 1. Eskuineko etxebizitzetan aerotermiako berokuntza sistema instalatzeko, obra-lizentzia ematea

150/2024 zkia: Ameikutz 2024 dirulaguntza ematea: 25.000€.

151/2024 zkia: Trinitate jaien dirulaguntza zuriketa ebazpena.

ERREGU ETA GALDERAK.-

Aztertzeko gai gehiagorik ez daudenez, Alkate-Lehendakariak 19:25-etan bilkura altxatzen du. Guzti honen Akta jasotzen delarik, nik Idazkari-Kontuhartzaile moduan, Ziurtatzen dut.

O. I.,
ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA